

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

6/2024 Foru Araua, martxoaren 13koa, 1/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 20koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, elektrizitatearen gaineko zerga berezian eta energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, baita Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa osatzeko xedez egindakoak ere

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2024ko martxoaren 13ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "6/2024 Foru Araua, martxoaren 13koa, 1/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 20koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, elektrizitatearen gaineko zerga berezian eta energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, baita Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa osatzeko xedez egindakoak ere;" aplikagarria zaien herritar guztiak, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

6/2024 FORU ARAUA, MARTXOAREN 13KOA, 1/2024 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, OTSAILAREN 20KOA, BALIOZKOTZEKO DENA, ONESPENA EMATEKO ARABAKO ZERGA ARAUDIRA EGOKITZEARI BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN, ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAN ETA ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPEN BALIOAREN GAINEKO ZERGAN EGINDAKO ZENBAIT ALDAKETA, BAITA KONTSEILUAREN 2016KO UZTAILAREN 12KO 2016/1164 (EB) ZUZENTARAUAREN TRANSPOSIZIOA OSATZEKO XEDEZ EGINDAKOAK ERE

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak di-rela-eta, otsailaren 20ko 1/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, elektrizitatearen gaineko zerga berezian eta energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, baita Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) zuzentarauaren transposizioa osatzeko xedez egindakoak ere.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da otsailaren 20ko 1/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan, elektrizitatearen gaineko zerga berezian eta energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketa, baita Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) zuzentarauaren transposizioa osatzeko xedez egindakoak ere.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 13a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA